

«HAURREN KONTRAKO GERRA» DIRUDIENAREN ISTORIO LATZAK

Gazako erasoak haurren kontrako gerra bat dirudi. Asteotan iritsi diren argazkietan eta datuetan haurrak izan dira tamalez protagonista; izan ere, 2012ko datuen arabera, Gazako biztanleriaren %44 inguru 14 urtetik beherakoa da.

Haurrak dira gerraren biktima hauskorrenak, eta gatazkak txikienengan uzten dituen zauri fisiko eta psikologikoak sendatzea oso zaila da, batzuetan ezinezkoa. Gazan bizi diren haurren gehiengoa ez da sekula bertatik atera eta 10 urte baino gutxiago dituztenek dagoeneko hiru gerra sufritu dituzten beren azalean. Hartara, ez da harritzekoa Yasmine al-Attar 10 urteko neskato palestinarraren erantzuna handitzean zer izan nahi duen galdetzerakoan: «Ez dakit bizirik egongo naizen». Eta bigarrenegiz galdetzean, neskatoak, hunkituta, hala esan du: «Medikua izan nahi dut, edo kazetaria. Jendeari laguntzeko lan bat egin nahi dut, edota, bestela, nire herrian gertatzen dena munduari jakinaraziko dion lan bat».

Shayma Sheikk al-Eiden istorioa ere gogorra da, motza bezain gogorra. «Mirari haurtxoa» goitizena jarri diote.

Bere amaren sabeletik atera zuten medikuek, ama israeldarren eraso batean hil eta minutu gutxira. Bizirik atera zuten eta segidan eraman zuten erietxera, eta inkubagailu batean sartu. Handik bost egunetara zendu zen, eraso baten ondorioz erietxea argirik gabe geratu zelako eta inkubagailua itzali egin zelako.

Mohammed Jaber (9 urte) eta bere arreba Ghina (5 urte) diru pixka bat hartu eta etxetik atera ziren litxarkeria batzuk erostera. Gurasoek ez zuten nahi etxetik ateratzea, baina «oso aspertuta» zeuden. Al Bureij errefuxiatuen kanpamentu jendetsuko kaleetan barna zihoazela, Mohammedek norbaiti entzun zion airezko erasoaren abisua jaso zutela. Korrika bueltatu ziren gurasoengana, badakitelako Gazan ez dagoela airezko erasoetatik babesteko gordelekurik. Gurasoak eta bost seme-alabak logela batean babestu ziren. Mariamek –amak– kontatu duenez, «Mohammedek oso gogoan du aurreko gerra eta bazekien zer gertatuko zen. Beldurrez zuri-zuri zegoela, buruko bat hartu eta aurpegia eta belarriak tapatu zituen. Itoko zela zirudien. Erasoaz geroztik, nire seme-alabak mutu daude».

begia, jendearen artean galtzen den zure familiaren gainean jarrita».

Ismailek ez zekien zehazki zer pasatu zen berekin zeuden gainontzekoekin. Zekien bakarra zen bere zapatak bere odolarekin blaituta zeudela. Babesa hartutako etxe horretatik ihesi bere etxeraino iritsi ziren bera eta familia. Minutu gutxiren buruan hiru misil erori ziren beren etxearen gainera. Zauritu egin zen.

Bera, ama eta anaia herrixkatik alde egiten saiatu ziren ondoren. Helikopteroek tiro egiten zioten korrika zihoan jendeari, eta bidean botata ikusi zituen bere osabaren eta lehengusuaren hilotzak. Frankotiratzaile israeldarrek jendearen hanketara zuzentzen zituzten tiroak, korrika egin ez zezaten.

NOIZ BERRESKURATUKO DU LASAITASUNA?

«Nire familiak eta nik Khuzaatik ateratzea lortu genuen. Nola? Zortea izan genuen. Zergatik? Ez daukat ideiarik. Gurekin geratu ziren haietako askoren gorpuek kalean botata eta hondakinen artean segitzen dute. Zenbat dauden? Auskalo! 20? 50? 100? Inork ez daki seguru. Oraingoz Khuzaatik atera diren irudi gutxiak Israelgo armadak zabaldutakoak dira eta horietan hondamendiaren irudi lazgarriak baino ez dira ikusten, barrena gorrotoz betetzen dizutenak eta gure herrixkak bere lasaitasuna urteetan ez duela berreskuratuko pentsarazten dizutenak. Edo, akaso, inoiz».

5.- Hiru mutiko palestinarrak, zerura begira. Haurrak dira Israelen erasoaren biktima nagusiak. Unicefek emandako datuen arabera, azken asteotan 400 haur hil eta 2.500 zauritu dira. Mohammed ABED | AFP

6.- Haur palestinarrak, babesleku batean jolasean. Gazan biztanleriaren %44 inguru 14 urtetik beherakoa da. 10 urteko neska-mutikoek dagoeneko hiru gerra ezagutu dituzte. Mohammed ABED | AFP

